

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### AGENDA 21eko Foroa

### 2009ko martxoaren 26an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean.

18:30etik 20:00etara.



*Argi ikusteko, nahikoa da begiradaren norabidea aldatzearekin.  
Antoine de Saint-Exupery*

**Gaia:** Zaldu eta Pisuzahar eremuen Hirigintzako jarduketa-programaren aurkezpena eta horren gaineko eztabaida.

#### ● Tailerraren helburuak

Gaurkoa "ez ohiko tailerra"<sup>1</sup> izan da eta udaletxean sortu den proiektu garrantzitsuari buruz aritu da: Zaldu eta Pisuzahar eremuen garapena.

Udalerrirako gai garrantzitsua da hori eta gure urteko bileretan aurreikusita ez bagenuen ere, Udalak proposamen hori Legazpiko Agenda 21eko Foroan aurkeztea eta eztabaidatzea interesgarria izan daitekeela pentsatu du.

Horrela, tailerra egiteko proposamena eta bertan lortu nahi diren helburuak zehatzak izan dira. Urratsez urrats, hauek izan dira helburuak:

- Lehenbizi, Zaldu eta Pisuzahar eremuen Hirigintzako jarduketa-programaren helburuak eta edukiak **ezagutzea**.
- **Foroari hitza ematea**, gaiari buruz duen iritzia eta ikuspuntua azal dezan.

<sup>1</sup> Hasiera batean gaurko merkataritzaren gaia aztertzea genuen aurreikusita. Baina merkatariek hala eskatuta, gai hori hurrengo bilerarako utzi dugu (apirilaren 1ean egingo dugu). Aldaketa honek eragozpenik ez sortzea espero dugu. Horrela, malgutasunarekin, prozesura eta haren beharretara egokituko gara!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zertarako? Taldeak azalduko dituen gaiak, zalantzak, ideiak,... (egoki iritziz gero), Udalak eta proiektua idatziko duen enpresak aztertu eta aintzat har ditzaten.

### ● **Nortzuk hartu dugu parte?**

Gaurko bilerak eman duena azaltzen hasi aurretik, eskerrak eman nahi diogu taldeari. Gaur **34 pertsonak osatu dute taldea eta beraien parte hartzea eskertu nahi dugu**. Ez ohiko bilera izan da gaurkoa eta garai honetan ez da lanik falta izaten, baina,... hala ere ez diguzue hutsik egin! Aitzitik, zuen jarrerarekin eta parte-hartzearekin Foro hau apartekoa dela erakutsi diguzue beste behin ere; beraz, .... **eskerrik asko!!!!**

Iñaki Mauleon (Domingo Agirre Ikastetxea) ♦ Isabel Vallejo (Olazabal institutua) ♦ Montse Vallejo ♦ Juan Carlos Alzelai (Brinkolako Harri Urdin Auzo Elkarte) ♦ Bixente Garmendia (Eako zinegotzia) ♦ Miriam Orozko ♦ Arantxa Seguro (Haztegi Ikastola) ♦ Manuel Fernandez (Nagusilan) ♦ Pablo Romarateabala ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Jose Luis Cid ♦ Floren Gutierrez ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Ana Manzanos ♦ Eugenio Gil ♦ Ane Odriozola ♦ Iban Odriozola (Ilinti) ♦ Txomin Casado ♦ Junkal Fernandez ♦ Asier Zaldúa (Noticias de Gipuzkoa) ♦ Mikel Romarateabala ♦ Arantxa Lobo ♦ M<sup>a</sup> Cruz Alustiza ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Iker Azurmendi ♦ Igor González (Herrigintza) ♦ Josu Aguirrezabalaga (Sestra, Ingeniería y Arquitectura) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, S.C.).

### ● **Aztertu den gaia, zehatz-mehatz**

Bileraren helburuei erantzunez, tailerrak hiru zati desberdin izan ditu. Honela laburtu ditzakegu:

- 1.** Ezagutzea! Zer proposatzen du Zaldu eta Pisuzahar eremuen Hirigintzako jarduketa-programak?
- 2.** Iritzia ematea! Foroak, zein iritzi du horretaz?
- 3.** Eta guztiarekin, zer? Hurrengo urratsak zehaztu ditugu.

Ikus dezagun, puntuz puntu, bileraren nondik norakoa laburtzen duen edukia.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 1. Ezagutzea! Zer proposatzen du Zaldu eta Pisuzahar eremuen Hirigintzako jarduketa-programak?

Inma Hernandez teknikariak ongi etorria eman die parte-hartzaileei eta tailerra aurkeztu ondoren, denboraz larri ibiltzen garenez, zuzenean hasi gara gaiarekin. Horrela, Soteren (Legazpiko alkatea), Igorren (Herrigintzako) eta Josuren ('Sestra Ingenieria y Arquitectura' enpresakoa) eskutik, hasiera eman diogu gaiari. Laburtuta:

#### Udalaren asmoa:

Legazpiko Udalak udalerrian sartzeko sarbide berri bat egokitu behar dela uste du. Sarbide berriarekin:

- Gaur egun dagoen bidean ematen diren trafiko-arazoak konponduko lirateke.
- Hiriguneko goialdeko auzoetara (Urtatza, San Ignazio,...) iristeko bide berri bat egokituko litzateke.
- Sarbide politagoa eta atsegingarriagoa lortuko litzateke.

#### Sestra enpresako arduraduna:

Horrela, Udalak, Herrigintza udal enpresaren eskutik, Zaldu eta Pisuzahar eremuen Hirigintzako jarduketa-programa egiteko ardura eman dio Sestra enpresako talde teknikoari. Lan horretan, Sestra enpresak Legazpin indarrean dagoen Hiri-antolamendurako Plan Orokorrak (bide berria jasotzen duena) dioenaren arabera egin beharko du aipatu jarduketa-programa.

#### Sestra enpresak egindako bi proposamen:

Udalak ezarritako oinarriak eta irizpideak aintzat hartuta eta Legazpiko Hiri-antolamendurako Plan Orokorrak dioena eta eremuen baldintza teknikoak kontuan hartuta, Sestra enpresak bi ordenazio edo proposamen egin ditu Legazpiko Hirigintzako jarduketa-programarako. Bi proposamenetan honakoak aurreikusi dira:


- Udalerrira sartzeko bide berri bat. Bidea diseinatzean estetikako irizpideak sartu dira, sarrera leunagoa lortu ahal izateko (horretarako, formatu desberdineko berdeguneak proposatu dira, espaloi zabalak oinezkoentzat, bidegorria,...)
- Halaber, bizitegitarako eta jarduera ekonomikoen garapenak aurreikusi dira; horien aprobetxamenduei esker (Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean dagoeneko aurreikusitako) proposatutako bide-azpiegiturak ekarriko dituen kostuei aurre egin ahal izango zaie.

Zehatzago, zeintzuk dira Sestra enpresak egin dituen bi proposamenen giltzarriak? Zertan dira desberdin egin diren bi proposamenak? Hori argi eta garbi ikusiko dugu planoari eta Igorrek eta Josuk emandako azalpenari esker:

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Irudia: Sestra enpresaren proposamenak Zaldu eta Pisuzahar eremuetako hirigintzako jarduketara-programarako.



### Aukera bietan sartzen dira:

- **Sarbide berria** eta hura finantzatzea ahalbidetuko duten **bizitegitarako aprobetxamenduak** (gorriz markatuta) eta **jarduera ekonomikoaren aprobetxamenduak** (pabilioi berrietarako gunek, urdinez).
- **Zerbitzu-bide bat**, jarduera ekonomiko berrietarako gorde diren eremuetan eraikiko diren pabilioietara iristea eta bertatik irtetea ahalbidetuko duena (urdinez markatu diren pabilioien parean doan bidea); bidea osatzeko, irudiaren ezkerrean ageri den errotonda txiki bat egokitu da, bertara joan behar duten ibilgailuek maniobrak eroso egin ditzaten.
- **Espaloi zabalak oinezkoentzat, berdeguneak eta bidegorri bat**; sarrera berriari itxura ederragoa, erakargarriagoa,... ematen dioten elementuak.

### Zertan dira desberdin bi proposamenak?

- Funtsean, bidetako trazaduran dira desberdin; trazadurak baldintzatzen du berdeguneak, espaloiak eta bidegorria eskuinaldean ezartzea. Bigarren aukeran, berdegune zabala egokitu da industria-eremu berriaren aurrean (hainbat tokitan 15 metroko zabalerarekin) eta berdegune hori landarezko eta ikusmeneko pantaila izan daiteke.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Bi aukerak aurkeztu ondoren, galderak egiteko, galderei erantzuteko, zalantzak argitzeko,... txanda ireki dugu. Atsegin duguna edo ez duguna aztertzeari ekin aurretik funtsezkoa delako beharreko informazioa eskura izatea.

Hona hemen mahai gainean jarri diren gaiak:

- **Bermatuta geratuko al litzateke ibilgailu astunen (kamioiak) sarrera industria-eremu berrira?**

Igorren eta Josuren erantzuna: Bai, hainbat elementuri esker (bide zaharra behealdean ezarriko diren pabilioietarako, errotonda txikia goialdeko pabilioietarako,...). Horrezaz gain, ondoren ordenazioa berrantolatzeke aukera egon daiteke eremu horretan hainbat zirkulazio sustatzeko (adibidez, noranzko bakarreko zirkulazioa proposa daiteke, edo ez,...).

- **Aukera egongo al litzateke pabilioi zaharretara eta berrietara iritsiko den trafiko astuna gaur egun dagoen errepidetik bideratzeko? (horrela eginez gero, zerbitzu-bidea ez litzateke derrigorrezkoa izango eta oinezkoentzako eta bizikletarientzako leku gehiago egongo litzateke).**

Josuren erantzuna: Aurreikusitako pabilioi berrien kokapena eta ezaugarriak ikusirik (batzuk bi altueratan), ez litzateke bermatuta geratuko beheko bidetik pabilioi guztietarako sarbidea.

- **Azpiegitura horren finantzaketa, nola izango litzateke?**

Igorren eta Josuren erantzuna: Bide-azpiegitura berriak (bide nagusia, zerbitzu-bidea, errotonda txikia,...) bizitegitarako eta jarduera ekonomikoen garapenean aprobetxamenduekin ordainduko lirateke (horrela dago jasota Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean).

Soteren erantzuna: Gainera, horrekin krisialdi honetatik irten eta enpresek lurzoru eskatzen hasiko dutenerako bermatuta izango dugu industria-lurzoru urbanizatua.

- **Errotonda txikiaren gainean dauden marra txikiek, zer adierazten dute?**

Igorren eta Josuren erantzuna: Goialdera joateko (eskailerak) oinezkoentzako bi pasabide adierazten dituzte.

- **Zumarragaraino doan egungo bidegorria, nola geratuko da lotuta proposamen berri honekin?**

Soteren eta Inmaren erantzuna: Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia gogor ari dira lanean azkenaldi honetan, Legazpitik Zumarragara doan bidegorriaren jarraipenean aurrera egiteko. Proiektu berri honen aurrean, Aldundia prest egongo litzateke bidegorriaren ibilbide berria Lekuona-Azkuenean eraikitzea aurreikusi den industria-eremu berriraino luzatzeko aukera aztertzeke; gero, bertatik egungo bidegorriarekin lotuko litzateke. Gainera, gaur egun dagoen bidegorriaren ibilbide zaharra bere horretan mantenduko litzateke.

- **Bidegorriarekin jarraituz, errotonda txikiaren parean bukatu egiten da; nola lotuko litzateke herri barruan egokitu den bidegorriarekin?**

Soteren eta Inmaren erantzuna: Aukera desberdinak egon daitezke eta horiek zehatz-mehatz aztertu behar dira. Batetik, tarte horretan bizikletak oinezkoarekin konpartitu dezake bidea. Aldundiak bestelako proposamena egin du: tarte estuenetan, zuhaitz batzuk edo aparkaleku batzuk kentzea (edo espaloia zertxobait estutzea), bereizitako bidegorriari jarraipena emateko..

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 1. Iritzia ematea! Foroak, zein iritzi du horretaz?

Mahai gainean dugun informazio guztiarekin, Foroari hitza emateko unea iritsi da eta egin den proposamenari eta planteatu diren bi aukerei buruz bere iritzia entzuteko ordua iritsi da. Eginbehar horretan lagungarri izan ditugun galderak (lehenbizi banaka erantzun ditugu eta, gero, taldean azaldu dugu) oso errazak izan dira:

- Zer ikusten duzu/dugu ondo?
- Zer ez duzu/dugu ikusten?

Segidan, eta multzotan edo gai nagusietan antolatuta, foroko kideek eman dituzten iritziak jaso ditugu hitzez hitz; aipatu behar da, ia iritzi guztiek 2. aukerari egiten diotela aipamen. **Bertaratutako kideek 2. aukera ikusten dute egokien (hala ere, garbi azaldu denez, hainbat gai egokitu eta hobetu egin beharko lirateke).**



Multzotan,...	Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak
<b>Aukeratzen dugu</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har, bi aukeren artean<sup>2</sup></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren aukera egokiagoa iruditzen zait pabilioiak disimulatuta geratzen direlako. Ez nuke ezer aldatuko.</li> <li>• Helburua, sarrera ederragoa egitea baldin bada, 2. aukera hobeagoa da.</li> <li>• 2. aukerak industria disimulatzen laguntzen du.</li> <li>• 2. aukera, baina berdegune handi hori erabiltzeko baldin bada eta ez bakarrik ikusteko.</li> <li>• Nahiago dut 2. aukera, zuzena saihesteagatik.</li> <li>• 2. aukera interesgarriagoa iruditzen zait pabilioiak urrunago geratzen direlako.</li> </ul>

Multzotan,...	Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak
<b>Zer ikusten dut/dugu ondo?</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarbide berri bat sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoetara beste sarbide batetik iristeko aukera izatea.</li> <li>• Hobetu egiten da goialdeko auzoetara iristeko aukera.</li> <li>• Laubide auzora iristeko sarbide berria.</li> <li>• Egialdek berehala behar du sarbide hori.</li> <li>• Laubidera iristeko sarbide zuzenagoa lortzen dugu.</li> <li>• Sarrera politagoa legazpiarrontzat.</li> <li>• Laubidera eta inguruko auzoetara iristeko sarbide zuzenagoa lortzen dugu.</li> </ul>

<sup>2</sup> Pertsona askok 2. aukeraren gaineko ekarpenak egin dituzte zuzen-zuzenean, beraien aukeraketa bestelako txartelean zehaztu gabe.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Multzotan,...	Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak	
<b>Zer ikusten dut/dugu ondo?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduera ekonomikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Industrialderako lursail berriak irabazten ditugu eta herri bezala etorkizunerako dugun aurreikuspenarekin bat dator hori.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdeguneak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zuhaitzi ederra: Bertako zuhaitzak izan daitezela.</li> <li>2. aukerako berdegunea erabiltzeko izan dadila.</li> <li>Berdegune zabalagoa bigarren aukeran.</li> <li>Lorategiarena oso ondo dago.</li> <li>Parterrea zabala da.</li> <li>Zuhaitzekin egindako bereizketa.</li> <li>Berdegunea.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eremuen banaketa (oinezkoak, ziklistak)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Espaloia-bidegorria bereizketa,... (lehenengo aukeran zein bigarrenean)</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bidegorria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ondo iruditzen zait bidegorria gaur egun dagoen bidetik luzatzea.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bestelakoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>La Salle kalera irteera bat egitea, bertatik trafiko arina bideratzeko. Positiboa.</li> </ul>

Multzotan,...	Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak	
<b>Zer da ikusten ez dudana/duguna?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Oro har</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pasoko trafikoa egungo bidetik baldin badoa, ez dugu gauza handirik lortuko.</li> <li>Oñatira edo kalera doan jendeak lantegien arteko bidetik pasatzen jarraitu behar du.</li> <li>Konpontzen al da arazoa?</li> <li>Agian ez da aukera hobea egongo baina kanpoko jendearentzako ez da sarrera aldatuko.</li> <li>Gaur egungo bideak irudi berdina edukitzen jarraituko du.</li> <li>Herriko sarrera, Oñatira joateko adibidez, berdina izaten jarraitzen du.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bidegorria:</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nola lotu Zumarragara joateko gaur egun dagoen bidegorriarekin? (berria egin arte).</li> <li>Laubidera igoteko bidean bidegorriak ez du jarraipenik.</li> <li>Zalduko etxeak bidegorritik oso gertu daude.</li> <li>Bidegorria Zaldun etetea.</li> <li>Bereizi al daiteke kurba zabalagoa eginez abiadura murrizteko eta Zaldu libratzeko?</li> <li>Ez zait ongi iruditzen bidegorria Zaldun etetea.</li> <li>Proposamena: Bidegorria eta espaloia biak 15 metro horietan elkartuta, oinezkoentzat eta ziklistentzat seinaleak jarri.</li> <li>Zaldu.</li> <li>Zalduko planifikazioa.</li> <li>Bidegorria gaur egun dagoenarekin lotzen saiatzea eta Zaldun ez etetea.</li> <li>Zaldu inguruan bidegorria estutu egiten da. Tokia egiteko beheko aparkalekuak kendu litezke.</li> </ul>

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Multzotan,...	Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak	
Zer da ikusten ez dudana/duguna?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduera ekonomikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Behar al dira pabilioiak bi altueran?</li> <li>Azkeneko pabilioia (errotonda txikiaren ondoren geratzen dena), kamioi-jario handia egongo litzatekeelako. Trukatzea.<sup>3</sup></li> <li>Kanposantu zaharrean isolatuta geratzen da pabilioi bat.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtatza erreka</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtatza errekarari ematen zaion konponbidea. "Ubidea" ematen du, ezin al zaio beste buelta bat eman?</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errotonda txikia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errotonda txikia ez dela aukera ona iruditzen zait. Ez du Urretxukoaren antzik izango.</li> <li>Errotonda txikia zentratuta egon beharko litzateke.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Finantzaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren finantzaketa.</li> <li>Finantzaketa.</li> <li>Finantziazio saila.</li> <li>Sarrera berria egitea ondo iruditzen zait baina aprobetxamenduen bidez finantzatzea ez zait bideragarria iruditzen.</li> <li>Planaren finantzaketa, egungo egoera ikusita.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sarbideak eta trafikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Industrialdera joateko sarbideak.</li> <li>Ez dadila norabide bakarrekota izan herriko erdigunearekin lotuta egoteko.</li> <li>La Salle kalera iristean "itogunea" sortzen da.</li> <li>Herriko hirigunearekin (udaletxea,...) lotzeari begira sarbidea ez dela erabilgarria uste dut.</li> <li>Gaizki. Pasoko trafikoa herri barrutik sartzen jarraituko du.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eremuen banaketa (oinezkoak, ziklistak)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errotonda txikiaren ondoko hormaren mota. Landareekin egindakoa izan zitekeen? Edo ezponda?<sup>4</sup></li> <li>Pabilioien espaloi ondoan geratuko den horma.</li> </ul>

<sup>3</sup> Horri dagokionez, Sotek Udalaren asmoa Patricio Echeverriaekin hitz egitea dela esan du eta beste leku batera joateko aukera azter dezatela eskatuko zaie; horrela, eremu hori hirugarren sektoreko erabileretarako izan daiteke (eta etorkizunean gizarte-ekipamendurako izan liteke).

<sup>4</sup> Josuk erantzun dio galdera horri eta lurraren ezaugarriak aintzat hartuz gero, zaila ikusten da horma izango ez den beste zerbait jartzeko aukera izatea.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Multzotan,...		Foroko kideek bota dituzten ideiak eta proposamenak
Proposamenak, aintzat izan beharreko bestelako gaiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Trafikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egungo bideak abiadura mugatuta izaten jarrai dezala, orduko 50 kilometrora.</li> <li>Oinezkoen pasabideetan abiadura-murriztaileak jartzea.</li> <li>Ahal izanez gero, oinezkoen pasabide goratuak edo abiadura-murriztaileak jartzea.</li> <li>Errotonda handian norabideak modu egokian adieraztea.</li> <li>Kamioiak joan behar duten lekutik joan beharko luketela uste dut (bide zaharretik).</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bestelako gaiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kanposantu zaharretik dagoen bidea mantentzea, bertatik oinez joan ahal izateko.</li> <li>Autobusak bide berritik joan behar baldin badu, geraleku bat jartzea.</li> <li>Berdegunerako zer nolako altzariak eta zuhaitzak aurreikusi dira?</li> <li>Ez daitezela zuhaitz hostotsuak izan (zirkulazioa oztopatzen baitute).</li> </ul>

## 2. Eta guztiarekin, zer? Hurrengo urratsak zehaztu ditugu

Taldearen iritziak eta ikuspegiak entzun ondoren, orain Udala eta aipatu enpresa izango dira esandako guztia zehatz-mehatz aztertu eta hirigintzako jarduketa-programa idatziko dutenak.

**Bi erakunde horiek honako konpromisoa hartu dute Foroaren aurrean: egingo duten azterketaren emaitza eta proposatuko duten behin betiko proposamena berriro hona ekartzea.** Modu berean, egindako aldaketak justifikatuko dituzte eta sartu diren edo ez diren gaien berri emango digute. Beraz, hirigintzako jarduketa-programak bere bidea jarraitzen du eta Foroko kideak... plano berri bat ikusteko geratu gara (ahal bada, eskala txikiagoan, udalerrri osoa ikusteko aukera emango duena)!

### ● Bestelako gai interesgarriak

Akta bukatzeko, bileraren hasieran Inmak azaldu dizkigun bi ohar jaso ditugu:

- Batetik, joan den **otsailaren 26ko bilerari dagokion akta** bidaliko da berriro. Oraingoan, Fernando Martinez de Albeniz jaunak bidegorriaren ibilbideari buruz egin duen zehaztasuna sartu dugu aipatu aktan.
- Bestetik, datozen egunotan martxan jarriko da **“Eskolara oinez” programa** Legazpin (bertan parte hartzen dute Udalak, ikastetxeak eta Uggasak). Hauxe da programaren helburua: gurasoek haurrak oinez eraman ditzatela ikastetxeetara. Horretarako, datorren apirilaren 2an bilera informatiboa egingo da.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### ● **Eta agur esaten dugu datorren apirilaren 1era arte.**

Oraingoan, gaurko gaiak eskatu digun aparteko bileraren ondoren, atsedean hartzeko tarte txiki bat besterik ez dizuegu emango!

Datorren apirilaren 1ean, asteazkenean, elkartuko gara berriro eta proposamen erakargarri batekin! Egun horretan, gure urteko egutegia jarraituz eta aztertzeko ditugun lehentasunezko gaietatik **“merkataritzaren egoera Legazpin eta sektore horren susperketa”** gaia aztertuko dugu. Foroak bere iritzia emango du gai horren gainean eta sektorea nola ikusten duen eta egoera hobetzeko zer egin daitekeen aztertuko du. Emaidza, Legazpiko Udalaren, UGGASaren eta merkataritza-ganberaren laguntzarekin herriko merkataria garatzen ari diren METAPLAN prozesuan sartuko da.

Ordura arte, ongi izan! Eta indarrez har ezazue udako ordutegia!

**Mila esker guztioi!!!**